

Nola aurkitu hondartzan galdutako haurrak

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Uda guztietan gertatzen da: haur batzuk galdu egiten dira hondartzan. Horregatik, asmatzen ari dira sistema berriak, megafonia erabili gabe, galdutako haur horiek gurasoengana itzultzeko.

1- Hondartzan galdututa

Zu edo ezagunen bat galdu al da inoiz hondartzan? Kontatu nola izan zen.



Orain entzun audioa eta erantzun galderari. Hiru sistema aipatzen ditu audioak galdutako haurrak bilatzen laguntzeko. Bata megafonia; zein dira beste biak?

.....

2- Falta diren aditzak aukeratu

Hemen duzu entzun duzun audioaren transkripzioa, baina aditz batzuk falta dira. Aukeratu aditz egokienak.

ESATARIA. Eguraldi ona egiten duenean, hondartzak lepo 1_____ . Jende asko elkartzen den hondartzetan gurasoentzat buruhaustea izaten da askotan haurrak begi-bistan izatea galdu ez daitezela. Adi egon arren, askotan gertatzen delako, ba haurra despistatu edo gurasoak despistatu eta galtzea, ezta? Baina eskumuturreko eta bestelako identifikazio-metodoek gurasoen beldurra 2_____ azken urteetan. Maialen Galparsoro ibili da horri buruz galdezka.

MAIALEN GALPARSORO. Bai, eguraldi ona azkenean. Eguna libre daukagu, gainera, baina hondartza tope. Hurrei urruti ez joateko 3_____ , ondoan jolasteko, baina kasurik ez. Konturatzerako, 200 metrotara daude ur ertzean zuloren bat egiten edo. Oihu egiten diegu etortzeko –ondokoa siestatik esnatu ere bai–, etortzen dira baina konturatu orduko bistatik 4_____ berriz.

Eta benetan galtzen badira? Megafoniaz 5_____ abisua lehen beti: “Haur bat galdu da. Julen izena du eta bainujantzi gorria 6_____ . Gurasoak etor daitezela bila Gurutze Gorriko atarira”. Hori entzuten genuen gutxi gorabehera. Mugikorra gehienok dugun honetan, berriz, haur asko ikusi ditugu besoan aita edo amaren mugikorra idatzita. Ura lagun txarra 7_____ , ordea, boligrafoaren tintak eta ez da metodo eraginkorrena,

aukeran. Azken urte hauetan, berriz, haurrek pultserak erabiltzen dituzte. Sopelan, adibidez, aurren 500 eskumuturreko identifikatzaile jarri dituzte doan herritarren esku. Zarautzen ere banatu dituzte mota honetako eskumuturrekoak. Sorosleek askotan 8 _____ galdutako haurrak eta identifikazio-sistema hauek asko laguntzen diete. Zarautzeko Gurutze Gorriko koordinatzailearekin hitz egin dugu; Alex Garate da bera eta horrelakoak dira pultserak Zarautzen.

ALEX GARATE. Txuriak 9 _____ eta gero identifikazioa daukate gorriz, gorriz idatzita. Bitarte bat daukate izen-abizenak jartzeko eta mugikorraren zenbaki bat. Zenbaitek, gainera, adibidez hemen, Zarautzen bertan, bere toldoaren zenbakia. Hori ere oso inportantea da, ze ubikazioa oso zehatza da.

MAIALEN GALPARSORO. Haur guztiek ez dute zertan izan, ordea, horrelako eskumuturrekorik baina galtzeko aukera berdina dute. Protokoloa oso zehatza da kasu horietan eta, bai, megafonia oraindik 10 _____.

(1) bete dira / betetzen dira	(5) ematen zuten / ematen dute	(8) dute / jasotzen dituzte
(2) arindu dute / du	(6) darama / eramaten du	(9) dute / dira
(3) esaten digute / esaten diegu	(7) da / du	(10) erabiltzen du / erabiltzen da
(4) galdu ditugu / galdu gara		

3- Testua osatzen

Audioaren transkripzioetik esaldi batzuk falta dira. Aukeratu hutsune bakoitzean zein falta den.

ESATARIA. Eguraldi ona egiten duenean, 1 _____ Jende asko elkartzen den hondartzetan gurasoentzat buruhaustea izaten da, askotan, 2 _____ galdu ez daitezen. Adi egon arren, askotan gertatzen delako, ba haurra despistatu edo gurasoak despistatu eta galtzea, ezta? Baina eskumuturreko eta bestelako identifikazio-metodoek gurasoen beldurra arindu dute azken urteetan. Maialen Galparsoro ibili da horri buruz galdezka.

MAIALEN GALPARSORO. Bai, eguraldi ona azkenean. Eguna libre daukagu, gainera, baina hondartza tope. Hurrei urruti ez joateko esaten diegu, ondoan jolasteko, 3 _____ Konturatzerako, 200 metrotara daude ur ertzean zuloren bat egiten edo. Oihu egiten diegu etortzeko – ondokoa siestatik esnatu ere bai–, etortzen dira baina konturatu orduko 4 _____ berriz. Eta benetan galtzen badira? Megafoniaz ematen zuten abisua lehen beti: “Haur bat galdu da. Julen izena du eta 5 _____ Gurasoak etor daitezela bila Gurutze Gorriko atarira”. Hori entzuten genuen gutxi gorabehera. Mugikorra gehienok dugun honetan, berriz, haur asko

ikusi ditugu 6 _____ Ura lagun txarra du, ordea, boligrafoaren tintak eta ez da metodo eraginkorrena, aukeran. Azken urte hauetan, berriz, 7 _____. Sopelan, adibidez, aurten 500 eskumuturreko identifikatzaile jarri dituzte doan herritarren esku. Zarautzen ere banatu dituzte mota honetako eskumuturrekoak. 8 _____ eta identifikaziosistema hauek asko laguntzen diete. Zarautzeko Gurutze Gorriko koordinatzailearekin hitz egin dugu; Alex Garate da bera eta horrelakoak dira pultserak Zarautzen.

ALEX GARATE. Txuriak dira eta gero identifikazioa daukate gorritz, gorritz idatzita. Bitarte bat daukate izen-abizenak jartzeko eta mugikorraren zenbaki bat. Zenbaitek, gainera, adibidez hemen, Zarautzen bertan, bere toldoaren zenbakia. Hori ere oso inportantea da, ze ubikazioa oso zehatza da.

MAIALEN GALPARSORO. Haur guztiek ez dute zertan izan, ordea, horrelako eskumuturrekorik baina galtzeko aukera berdina dute. Protokoloa oso zehatza da kasu horietan eta, bai 9 _____,

haurrak begi-bistan izatea ____

bistatik galdu ditugu ____

Sorosleek askotan jasotzen dituzte galdutako haurrak ____

bainujantzi gorria darama ____

besoan aita edo amaren mugikorra idatzita ____

haurrek pultserak erabiltzen dituzte ____

megafonia oraindik erabiltzen da ____

baina kasurik ez ____

hondartzak lepo betetzen dira ____



ERANTZUNAK

Hiru sistema aipatzen ditu audioak galdutako haurrak bilatzen laguntzeko. Bata megafonia; zein dira beste biak?

Pultsera edo eskumuturrekoak eta gurasoen telefonoak besoan boligrafoz idaztea

Falta diren aditzak aukeratu

- 1) betetzen dira
- 2) arindu dute
- 3) esaten diegu
- 4) galdu ditugu
- 5) ematen zuten
- 6) darama
- 7) du
- 8) jasotzen dituzte
- 9) dira
- 10) erabiltzen da

Testua osatzen

- 1) hondartzak lepo betetzen dira
- 2) haurrak begi-bistan izatea
- 3) baina kasurik ez
- 4) bistatik galdu ditugu
- 5) bainujantzi gorria darama
- 6) besoan aita edo amaren mugikorra idatzita
- 7) hurrek pultserak erabiltzen dituzte
- 8) Sorosleek askotan jasotzen dituzte galdutako haurrak
- 9) megafonia oraindik erabiltzen da